

hondo-hondotik

Andoni Eizagirre

(EHUko ikaslea)

Politikaren denborak eta aukerak

Posnazionalaren konstelazioa dizute gaurkoa, baina etnia, nazio, erlijio eta kultura gatazkaz inguratuak gaude, eskualde gerrak maila globalean. Multikulturalismoa diskurtso poskolonialaren presiopean sortu merkatu estrategiatzat jo dute aditu kritikoek luzaroan. Artean, esaterako, artistek espektakuluaren interpretazio *kitsh-folk* nardagarriak jasan behar izan dituzte mendebaldeak ez delako bere zentroa ez den beste espektro posmodernorik errealitateak irakurtzeko, nortasun eurozentriko nartzisistaren isla behar du guztiak. Instituzioetan ere multikulturalismoaren eztabaida monopolizatu egon da, nagusia-esklabo ardatz kolonialean oinarritua sarri, tolerantzia ilustratuaren aldaera garaikidea, kontrol militarra ez ezik kontrol semantiko ahalbidetu duena. Gaur ez dago zalantzarik gauzak aldatzen hasiak direla, Hollywood dek argiztatu ezin dituen periferiako gertakariak agertzen ari zaizkigula, gehienak biolentziara mugatuak geratzen direnak, liberazio nazionalerako borrokak eta beselakoak. Gero eta zalantza gutxiago dago Gerra Hotzarekin bloke-politikak petrifikatuta eduki eztabaida lehertu zaiuzula, hau globala eta lokala elkarjoan dauzkagun garaioetan gertatuz gainera.

Gure teoria eta diskurtsoei garai berrien dialektikan konplexutasuna tematizatzea dagokie, hori zaie erronka nagusia. Helburu historiko eta utopikoak berregokitzea komeni zaigu, eta horretarako baldintza iruditzen zait tokitik gure berezitasunekin pentsatzea. Baita guztiok kontziente izatea agian sekula ez dugula jakingo besteek nola ikusten duten ingurua. Horretaz kontzientzia hartzea nahitaezkoa da, baina baita ikuspegi horiek gureak adina arrazionalak eta moralak izan daitezkeela ere. Gero etorriko dira etorri beharrekoak.

Izan ere, gertatzen ari zaiguna ez duzu kasualitateak edo halabeharrak sortua. Bota diezaiogun iraganari begiradaxo bat. Demokrazia modernoaren hastapenetan berdintasuna tematizatu nahi zaizu, gizarte feudaletako mailaketak gainditu eta hiritartasuna sortu nahi zaizu. Ezin ahaztu halaber erlijio gerra zibil sekular eta odoltsuak nahiz geroztik sortuko diren autodeterminaziorako subiranoa, indibiduo, Estatua. *Leviathan* berrian jardunbide legalak neutralak eta ez-konfesionalak zaizkizu, Estatu laikoaz hitz

egiten hasiko da, baita arrazionaltasun zientifikoa. Frantzia zaizu adibide paradigmatikoa. Begiratu besterik ez diegu gure aberkideei, beraz, besteen artean bideratze moderno horrek ze ondorio ekarriko dituen jakiteko; irakurleak sobera daki Espainian eta Hego-Euskadin liberalismo politikoa ez dela inoiz emango, *ma-ter dolorosa*, kontrarreformismoa eta klima autokratikoa, denborarekin modernia-aztarna bakarrek zentralismoan aurkitzeko.

Modernitatearen epilogoaz, beraz. Baina, esan bezala, modernia-aren iraganbide arruntak ekarriagatik ere gauden honetara, bideragarritasun moderno bakarra gotorlekuak, harresi elektronikoak, lotsaren harritzarrak, ukazioak direla iruditzen zait. Erantsi horri fenomeno sozial berrien agerpenak. Telepantailan ikus-entzuten dugun errealitatea orotara. Hori dela eta, bidezkoa iruditzen zait, errealitate birtualetako ilusioetatik erreala birtualizatzeko ahaleginera pasatzea. Urratsa ongian, moralean, kulturen, politikan berdintasuna eta homogeneotasuna tematizatzeak subjektuen diferentzia eta pluralitasunera eman beharko litzateke, Ch. Taylorrek aipatu *deep diversity* delakoaren bidetik. M. Walzerren ideia hau har genezake abiapuntutzat: identitateak multiplikatu ahala pasioak murrizten dira, eta gainera negoziazio eta elkarriketarako aukerak areagotu, beste aurkitzearekin norbera ezagutuz. Teoria eta filosofia politikoa urrats horren errekonozimendua areagotuz doa korronte desberdinen artean. Liberalismo politikoa azken aldaerak jada onartu dizute aipatu dudun estilazio neutrala, elkargune arkidemikoa, justizia edo ekitateko bide arrazional/unibertsala, edo ontologia liberala gainditu beharra. M. Sandelek J. Rawlsi egindako kritika aurrera urratsa duzu: indibiduoen izaera atomista gainditze bidean dago, komunitate batekiko pertenezia eta identitate kolektiboa onartuz indibiduoen ezaugarri gisa. Arazoak, noski, egon badaude, ideia horren interpretazioan edo instituzionalizazio moduetan adibidez, baina eman

pausua funtsezkoa duzu. Adibide garbiena Rawls berak emandako biraketa da. Ez naiz gai honetan gehiago luzatuko, gainera J. Sudepek eskertzekoak diren lanak eginak dizkigu gai hauetaz. Dena dela, bigarren Rawlsen galdera bat aipatu nahi nuke, aurrera gure artean eztabaidan jarraitzeko aukera eman diezagukeelakoan: «Nola lortu arrazoizko erlijio, filosofia, moral dotrinek zatikatutako hiritar aske eta berdinen gizarte orekatu eta justua?» Europako Konbentzioan ikusten ari gara, ez dira alferrik Estatu modernoak agenteak, fundamentu ahuletan oinarrituz garaiko eta

tokiko irakurketetara irekiak egotea zaila zaiela Prokasto modernoei. Gizarte konplexuetan politikaren denbora berriak multimediatikoak eta multikulturalak agertzen zaizkigu. Komunikazioaren gizartean arma irudia, eta beldurra gertakari mediatikoa direnean, beti agertuko dira publizistak eztabaida nominalista baztertzaila eta gorrotatzailaekin: hau esparru akademikoan gerta daiteke, Sartorik etorkin-fundamentalista-biolentoekin egin bezala; baita, instituzio nahiz egunkarietan, abertzale kontzeptual eta etnomanoak ondo dakien bezala —Aranaren arima heredatu dugun bekataria garelako esaten digute, San Agustinekin—. Aldagai hori beti eduki beharko dugu presente, zer kultura politikotan mugitzen garen alegia, funtsezkoa da. Gainontzean, guri ere tresna analitiko berrien jabe egiten hastea dagokigu, nondik gatozen, ze helburu ditugun ahaztu gabe: bitxia da inork irakurri gabe, denok jakitea Arana gaiztoa dela, baztertzea beste aukerarik gabe, baina bide batez independentzia baztertuz. Posmodernian berdin, irakurri ahala soilik sortuko zaizkigu galderak, zalantzak, ziurgabetasunak (1); eta, gauden tokitik pentsatuz soilik eman ahalko diegu erantzuna lekutuak dauden gure arazoei (2). Adibide bana ipiniko dut informazioaren gizartean baliabide sinbolikoei ditzuten arriskuak agerian uzteko asmoarekin.

Gaur modan dago gure biografien aktore bilakatu garelako esatea. Gure ibilbideak *bricoleur* metaforarekin laburbiltzen dizkizute. Hor badago arrisku bat gogoeta teorikoko ere: *collage* modukoak egitea irakurgai batekin eta bestearekin, nazioak, etniak, kulturak elkarrekin nahastuz, orain W. Kymlickari etorkinei proposatzen ari dena irakurritakoa gero guk izaera politikoa duen nazio nortasunaren gatazkarako gogoetan erabiliz esaterako. Ez dakit dena konstruktua den, baina garbi eduki behar gure dena ez dela berdin. Era berean, sarri gaizki ulertuak ere sortu nahi izaten dira bakoitzak korronteak bere gustura proposatzen dituenen: agian irakurlea harritu egingo da liberalak izan direla pluralismoaz eta autodeterminazioaz aritu direnak jakiten badu, eta komunitaristak gehiago multikulturalismoaz. Gure arteko publizistek ezkutatu nahi izaten duten gaia duzu hori. Ipin diezaiogun orain arreta bigarren aholkuari, gure tokitik pentsatzen ahalegintzeari alegia. Hau ere adibide batekin azalduko dut: patriotismo konstituzionala Habermasek Alemaniari pentsatu badu, agian tentuz irakurri beharko zaio Euskal Herriari, ez dezagun etorkin kurdia eta euskal abertzalea nahastu, gero estatutuaren patriotismoa aldarrikatzeko.

Esan bezala, konplexutasuna tematizatzea dagokigu, aniztasunak errekonozitzea, baina baita bereizketa analitikoak behar moduan egitea. Gaia konplexua da. Horren adibidea dituzu Sarasua, Odriozola eta Zabalok tokitik egin dizkiguten gogoeta desberdinak. Gaia arantzatsua bilakatzen da irakurleak testu abertzaleak gainditzeko ausardia badu, Requejo edo Caminal bat irakurritik. Hiritartasunaren gaia aurrerako urteetan funtsezkoa izango da; Kymlickak bere azken liburu eraberrituan teoria eta agenda politikoen ardatzean egongo dela adierazi du. Identitateak, pertenezia eta hiritartasunak bilakaera izango dute, fundamentu enpiriko nahikoa dago hori berresteko, erakundeak ere berregokitzearako keinuak egiten hasiak dituzu, beraien aldera noski.

Honez gero ezaguna behar dugun ikasgaia amaitzeko: memorizatuak ditugun klase politikoa proposamenak eta publizisten idazkiak badira gure aukera bakarra, *nazio posiblea* Estatutua dugu; eta, kritika autokonplazienteak inora ez garatzea, nahiz ustez arrazioa eduki eta errekonozitu gabe jarraitu. Ez badugu gure ikasi nahi, sozialismo historikoa begiratu besterik ez dago. Gero abertzale sozialistak izateko.

Garraio politika jasangarriaren alde

(Aurreko orrialdetik dator)

dego Autonomoan errepide sare nagusian transferiturik ditugun errepide guztiekin parekatuz. Eta bigarren, behin A-8arekiko diskriminazioa gaindituta, ga-

rraio politika jasangarriaren eztabaida foro zabal bat irekitzeko exijitza, zer motatako neurriak hartu behar diren erabakitzeko instituzioez gain gizarteak ere parte hartu ahal izateko.

Garraio jasangarriaren eztabaida serio

batek errepide sare osoa eztabaidan sartzea eskatzen du. Eta ez hori bakarrik, trenbideak, itsas garraioak, hegazkintzak ere zer paper jokatzen duten kontuan hartzea, eta, nola ez, garraio publikoa eta modu alternatiboak zelan bultzatu ere.

Eta nire ekarpen hau umore onez bukatzeko horra hor broma serio bat: demagun eztabaida zabal eta aurrerakoi baten ostean eta beste neurri askoren artean egoki

ikusten dela eta adostu ere bai A-8an bidesaria jartzea (jakina, ez beste autobide bat egiteko baizik eta Trenbideko *Hegoa Saihesbidea* proiektua finantzatzeko adibidez). Bada, nik orduan A-8an bidesariari baietz esango nioke, baina aldatzearen behintzat, zera eskatuko nuke: oraingoan A-8 ko ekialdeko partea libre utzi mende, eta bidesaria Bilbotik mendebalera doan zatian bakarrik jartzea.